

Arrasaten, 2019ko Azaroan

Bazkide agurgarri hori:

Eskutitz honen bitartez, ez ohizko batzarraren deialdia egiten dizugu.

**1. BATZAR OROKORRA**

Eguna: **Urtarrilaren 22an**

Ordua: 1. deialdia: 18:45tan.

2. deialdia: 19:00tan.

Tokia: Kulturaten, Jokin Zaitegi gelan.

Gai ordena:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta onarpena.
2. 2018ko jardueraren azalpena eta balantzearen onarpena.
3. 2019ko ekintza programaren azalpena eta aurrekontuaren onarpena.
4. 2020ko kuoten onarpena.
5. Galdera eta eskaerak.

**2. BAZKIDETZAK ETA FEDERATZEAK**

- Aurten Euskal Federazioak federatze lizentziekin eduki dituen arazoak direla eta, kobraketa abisuak jaso aurretik bankuetxetik kuotak eta federatzeak pasatzea behartu gaitu. Beraz, Besaide Mendizale Elkarteko arazoa edo akatsa izan ez arren, barkamena eskatzen dizuegu eragozpenagaitik.
- 2019an federatuta dagoena, abisurik jaso ezean, automatikoki federatuko da 2020an.
- Bankuko **kobraketa Abenduak 13an** pasako dugu.
- Eskuz ordaintzen duzuenok, honako kontu korrante batean egin ezazue diru sarrera eta ziurtagiria Besaidera ekarri:

*Euskadiko kutxa: ES23 3035 0001 51 0010000193*

*Gipuzkoako kutxa: ES39 2095 5055 53 1061009519*

- Edozein arrazoiengatik kobraketa egiterik ez badago, zuzenean baja emango da.
- Bankuarekin arazoren bat izanez gero, etor zaitez guregana lehen-bai-lehen.
- Besaideko txartelean zure argazkia itsatsi behar duzu.
- Federatu txartela Besaideko bulegoan jaso beharko duzu Urtarrila erdialdean.
- Aseguruak ez du prorrogarik, 2019ko txartelak 2019ko Abenduak 31rarte balio du.
- **FEDERATUENTZAKO OHARRA:** Federazioaren aldetik Pyrenaica-ren harpidetza kontrolatu egin behar dute. Etxe bakoitzean gutxienez harpidedun bat izatea derrigorrezkoa da. Gainontzekoek konfirmazio orrian onuradunaren datuak bete behar dituzte, bestela Pyrenaica kobratuko zaie.

*Besterik gabe, ondo izan.*

